

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

156. zenbakia

Data 2005-08-18

16911 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

USURBILGO UDALA

Irabazi asmorik gabeko elkarten erregistroari buruzko ordenantza.

USURBILGO UDALA

Udal intereseko irabazi-asmorik gabeko elkarteak erregistratzeko Araudia.

Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2005eko abuztuaren 5ean egindako ezohiko bilkuran, beste batzuren artean, honako erabaki hauek hartu zituen:

Lehena: Udal intereseko irabazi-asmorik gabeko elkarteak erregistratzeko araudiari Arantxa Manterola eta Garbiñe Errekondo A.-ek, Usurbilgo Herri Lanen izenean, aurkeztu dituzten alegazioak ez onartzea.

Bigarrena: Udal intereseko irabazi-asmorik gabeko elkarteak erregistratzeko Araudia behin betikoz onartzea, ondoan eransten den testuaren arabera.

Hirugarrena: Ordenantzaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarrena: Erabaki hauek interesatuei jakinaraztea.

ERANSKINA

UDAL INTERESEKO IRABAZI-ASMORIK GABERKO ELKARTEAK ERREGISTRATZEKO ORDENANTZA

«Udal honek hainbat laguntza eman die udalerrian operatzen duten Irabazi Asmorik gabeko Elkargoek. Gainera hauek Udalarekin kolaboratu dute udalaren bizitzan.

Aipatu Elkargoekin izandako harremanak udal-intereseko bihurtzen dituzte. Baina ez dago gisa horretako aitorpen formalik eta ezta Elkargo hauen guztien ezagutza zorrotz bat ere.

Herrian egon daitezkeen Udal Intereseko Elkargoen tresna deklaratio eta informatibo bat edukitzeko sortu da Elkargoen Udal Erregistroa.

Azkenik Erregistro honen izaera eta helburuak izango dira Entitate Lokalen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko 232. eta hurrengo artikuluen arabekoak eta hurrengo eran arautuko da:

Lehenengo.

Elkarten Udal Erregistroa sortu da eta bertan jasoko dira hirugarren puntuan aipatzen diren datuak.

Bigarren.

Erregistroan inskribatzea eskatu ahaliko dute: Usurbilgo udalerrian diharduten Irabazi Asmorik gabeko Elkarteen, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurtasunaren Saileko Elkargoen Erregistroan behar bezala inskribatuak baldin badaude.

Hirugarren.

Elkargo interesatuek Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dute eskaera hurrengo dokumentazioarekin:

—Eusko Jaurlaritzako Elkargoen Erregistroan inskribatuta egotearen agiri eguneratua.

—Elkartearen Estatutuak.

—Helbide soziala.

—Zuzendaritzakoen izen osoak.

—Titularra elkargoa izango den bankuko kontuaren zenbakia.

Laugarren.

Bidezko udal zerbitzuek aldeko edo aurkako proposamena egingo diote Tokiko Gobernu Batzarrari, honek inskripzioa egin edo ez erabakitzeko.

Bosgarren.

Herriaren Onurakoak eta Dirua Irabaztea Xede ez duten Elkarten Erregistroan inskribatzeak elkarte udalaren onurakoa dela aitortzea suposatuko du. Hala ere, zergetatik salbuetsia aitortu edota onura fiskalak aplikatzeko, Usurbilgo Udaleko Ordenantza fiskalak kontutan hartuko dira, dagokion jardunbidea aplikatuz.

Seigarren.

Erregistroa Idazkaritza Nagusiaren esku egongo da eta bera arduratuko da inskripzio eskaeretz.

Zazpigarren.

Udalak Erregistroko inskripzioa ezabatu ahal izango du baldin eta elkartearen jardunak ez direla udalaren lankidetzakoak jotzen badira. Ezabaketa arrazoitu egingo da, eta halaber entzute-tramitea bermatuko duen espediente ireki.

Zortzigarren.

Inskripzioko punturen batean aldaketaren bat emanez gero, izena emandako elkarte arduratuko da Erregistroari jakinarazteaz.

Bederatzigarren.

Sortutako Erregistroak Udal Arautegi Organikoan arautzen ez den bitartean edota kasu balitz Elkargoen Arautegian, Entitate Lokalen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Arautegiko 232, 233, 234 eta 236 artikuluek aitortzen dituzten erregimen eta helburuen jabe izango da, azaroaren 28ko 2.568/1986 Erret Dekretuaren bidez onartua.

Azken Xedapena.

Ordenantza hau sartuko da indarrean hamabost eguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari

Erabaki honen aurka, interesatuek, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu edota jakinarazpena jasotzen den biharamunetik kontatzen hasita. Helegitea aurkeztekotan, Euskal Herriko Epaimahai Gorenko Administrazioarekiko Auzialdiko Salario jo behar da. Hori dena, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.b) eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak emandako idazketaren ondorioz. Eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 109.c) artikuluekin bat etorritik.

Usurbil, 2005eko abuztuaren 9a.—Alkateordea.

(2955) (7985)